

**OSASUN-ZAINTZA. EZAUGARRIAK**

Lan Arriskuen Prebentzioaren Legearen 22. artikulua arabera langileen osasunaren zaintza **ENPRESARIEN EGINBEHARRA** da. Eta horren xedea, besteak beste, lan-baldintzek langileen osasunean duten eragina kontrolatzea da. Horretarako, kasuan kasuko prebentzio-zerbitzuak osasun-azterketak egiten ditu.

Gorago aipaturiko artikulua, era berean, ezartzen du mediku-azterketa horiek **BORONDATEZKOAK** izango direla **LANGILEENTZAT**, salbu eta proba horiek egitea ezinbestekoa bada:

- 1. Lan-baldintzek langileen osasunean dituzten eraginak ebaluatzeko.*
- 2. Langilearen osasun-egoera berarentzat, gainerako langileentzat edo enpresarekin loturiko pertsonentzat arriskutsua izan daitekeen egiaztatzeko.*
- 3. Lege-xedapenen batean hala ezarrita dagoenean.*

Osasun-probak egitea derrigorrezkoa dela erabaki baino lehen, **LANGILEEN ORDEZKARITZAREN TXOSTEN BAT** eskatu behar du enpresariak, honen inguruko iritzia jasotzen duena.

Hori aintzat hartuz, eta **OSASUN-ZAINTZAREN DUINTASUNA, INTIMITATEA ETA PROPORZIONALTASUNA** gordez, ELAk, orokorrean eta berariazko arrazoiak izan ezik, borondatezkoak izan behar direla defendatzen du.

Proba medikuen praktikari dagokionez, Prebentzio Zerbitzuen Arautegiaren 39. artikulua ezartzen ditu osasun-jardueraren nondik-norakoak:

- 1. Hasierako osasunaren ebaluazioa (...).*
- 2. Osasun-arrazoiengatik luzaroan lanetik kanpo egon eta berriro lanean hasten diren langileei osasun-ebaluazioa egitea (...).*
- 3. Osasuna aldizka zaintzea.*

Edonola ere, osasun-azterketak hurrengo printzipio hauen arabera egin behar dira:

**-BERARIAZKOTASUNA:** Lanpostu bakoitzaren berariazko arriskuei dagozkien **protokolo medikuak** aplikatuz.

**-KONFIDENTZIALTASUNA:** Proben emaitzak **isilpekoak** dira. Langileak borondatez jakinaraziko dizkie emaitzak hirugarrenei.

**-DOAKOTASUNA:** Osasun-azterketak **lanaldiaren barruan** egin behar dira. Bestela, bertan emandako denbora deskontatu beharko da.

**BILBO**  
Barrainkua 13  
Tel.: 94 403 77 00  
Fax: 94 403 77 11

**DONOSTIA**  
Consulado 8, behea  
Tel.: 943 00 50 00  
Fax: 943 00 50 01

**IRUÑEA-PAMPLONA**  
Iturralde y Suit, s/n  
Tel.: 948 00 79 30  
Fax: 948 00 79 59

**VITORIA - GASTEIZ**  
Manuel Iradier 25  
Tel.: 945 15 80 76  
Fax: 9435 14 10 74

## VIGILANCIA DE LA SALUD. CARACTERÍSTICAS

El artículo 22 de la Ley de Prevención de Riesgos Laborales establece que la Vigilancia de la Salud es una **OBLIGACIÓN DEL EMPRESARIO**, que sirve, entre otros, para controlar la incidencia de las condiciones de trabajo sobre la salud de las plantillas, y se realiza mediante exámenes de salud practicados por el Servicio de Prevención correspondiente.

Dicho artículo establece a su vez la **VOLUNTARIEDAD DE LOS TRABAJADORES/AS** de someterse a dichos reconocimientos médicos, salvo en los casos en los que dichas pruebas sean imprescindibles para:

4. *Evaluar los efectos de las condiciones de trabajo sobre la salud de los trabajadores.*
5. *Verificar si el estado de salud del trabajador puede constituir un peligro para el mismo, para los demás trabajadores o para otras personas relacionadas con la empresa.*
6. *Cuando así esté establecido en alguna disposición legal.*

Con carácter previo a establecer dicha obligatoriedad, es preceptivo un **INFORME DE LA REPRESENTACIÓN DE LOS TRABAJADORES/AS** al respecto.

En base a ello, y al derecho a la **DIGNIDAD, INTIMIDAD y PROPORCIONALIDAD DE LA**

**VIGILANCIA DE LA SALUD**, desde ELA defendemos el carácter general de dicha voluntariedad, salvo justificación expresa.

Al respecto de la práctica de las pruebas médicas, el artículo 39 del Reglamento de los Servicios de Prevención establece que la actividad sanitaria deberá abarcar:

4. *Una evaluación de la salud inicial (...).*
5. *Una evaluación de la salud de los trabajadores que reanuden el trabajo tras una ausencia prolongada por motivos de salud, (...)*
6. *Una vigilancia de la salud a intervalos periódicos."*

En ese sentido, los exámenes de salud deben cumplir en todo caso los principios de:

**-ESPECIFICIDAD:** Mediante la aplicación de **protocolos médicos** correspondientes a los riesgos particulares de cada puesto de trabajo.

**-CONFIDENCIALIDAD:** La información médica resultante tiene **carácter confidencial**, de manera que el/la trabajador/a podrá ponerlo en conocimiento de terceros siempre de forma voluntaria.

**-GRATUIDAD:** Los reconocimientos médicos deben realizarse **dentro de la jornada laboral**, o en su defecto, con el descuento del tiempo invertido en los mismos.

**BILBO**  
Barrainkua 13  
Tel.: 94 403 77 00  
Fax: 94 403 77 11

**DONOSTIA**  
Consulado 8, behe  
Tel.: 943 00 50 00  
Fax: 943 00 50 01

**IRUÑEA-PAMPLONA**  
Iturralde y Suit, s/n  
Tel.: 948 00 79 30  
Fax: 948 00 79 59

**VITORIA - GASTEIZ**  
Manuel Iradier 25  
Tel.: 945 15 80 76  
Fax: 9435 14 10 74